

# GOAZEN MENDIRA

Por P. GARMENDIA

Gaurregun askotxo ditugu mendiz-mendi dabiltzanak. Or doaz igande ta jai goizetan, makilla eskuan, txapela buruan, bizkarrean puska legorra, ariñ-ariñ mendi tontorrera. Erritik igesi doazela ematen du: ain doaz bizkor eta bizi. Eta ezta batere arritzekoa. Gaurregungo gizona buru-belarri sarturik dabilkigu pabriketako zulo ta zokoetan. Goizetik gauera, jo ta ke lanean. Auts ta ke tartean sarritan. Eta, jakiña. . . mendialdi bat egiteko gogoia etortzen zaio. Kale zuloko aize kiratsakin nazkatuta, mendi gañeko aize osasuntsua edan nai du.

Ori dala ta, bai zaiola atsegin gorputzari, eguzkia mendien gañetik jeiki orduko, malkarrez-malkar mendi tontorrera igotzea. «Txori banitz, zion poeta batek, mendiz mendi nenbilke». Eta orratx gure gizona, txori egadun biurtua. Ez nolanaiko txoria, gañera! Gorputzik eztula iruditzen zaio ta, or dabilla erpiñez-erpiñ.

Izan ere, mendiak erakarri egiten du. Ederregiak ditugu gure mendiak baztertuta eukitzeko! Ederregiak mendiko zuaitz, arru, iturri, baserri. . . Gorputzak ibiltzea on du. . . eta espirituak ere bai, mendiak ematen dion edertasun da paketik gozatzea. Espirituak batez ere! Gorputzak etsedena bezelaxe, eskatzen digu espirituak ere atsedena: ederrak ematen dion atsedena, alegia. Mendiko ixiltasunak eman dizaioken pakea. Mendia! Bai goxo dala izen au mendi-goizalearentzat! Van Gog-en koadroak datorzkit ba-batean gogora. Van Gog argia ta kolorea. Auxen baita mendia: kolore, argi, eguzkiaren erraiñu. . . usai gozo, zuaitz, iturriko uraren otza.

Bañan ortxen dago koxka. Mendiari bete-betea darion darion edertasuna txastatzeko, ezta aski, diran mendi guziak alderik-alde pasatzea. Bai zera! Begiratu bai ta ikusten eztutenak askotxo bai dira. Ederki dio Ruano idazleak: «Bai zozoak mendiz-mendi ibilli ta aien edertasun izpirik artzen ez dutenak». Ankak egingo dituzte alakoak, ez ordea espiritua bete. Eta ortarajoan bear guke mendira, batez ere.

Eta badute gure mendiak zer ase. Leen aipatu ditugun edertasunez gañera, baserrien izenak, mendien izenen jatorri, zuaitz arbolan ezagutza. Gure begien aurrean jartzen dan, guzti-guztiaren ezagupidea alegia. Ortarako bokazioa bear du. Mendi-bokazioa. Baserriarren istori bitxiak entzuteko, bokazioa; sorginkeri, euskal ipui jakiteko bokazioa, arratsaldeko eguzkiaren argi orixtati begira-begira egoteko, bokazioa. Oietxek emango baitiote atsedean aundi gure espirituari. Oietxek eta beste askok aseko dute gure espiritua.